



Terminologia eta Lexikografia Zentroa

UZEIren Sinonimoen Hiztegia

Microsoft Word 2010erako

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

1. SISTEMA ESKAKIZUNAK

- Windows XP, Windows Vista, Windows 7, Windows Vista Pro 64bit edo Windows 7 Pro 64bit
- Office 2010

2. INSTALAZIOA

UZEIren *Sinonimoen Hiztegiaren* plugina instalatzeko:

1.- “UZEISinonimoenHiztegia.zip” fitxategia deskonprimatu.

2.- *Sinonimoen Hiztegia.exe* fitxategian klik bikoitza egin eta, hortik aurrera, instalazioko laguntzaileak ematen dituen argibideak jarraitu.

3. LABURDURAK

3.1. Kategoria

| laburdura | azalpena |
|------------|----------------------|
| ad. | aditza |
| adlag. | adizlaguna |
| adond. | aditzondoa |
| det. | determinatzailea |
| erak. | erakuslea |
| esap. | esapidea |
| interj. | interjekzioa |
| iz. | izena |
| iz./izond. | izena/izenondoa |
| izlag. | izenlaguna |
| izond. | izenondoa |
| izord. | izenordaina |
| junt. | juntagailua |
| lok. | lokailua |
| lokuz. | lokuzioa |
| onom. | onomatopeia |
| postp. | postposizioa |
| prt. | partikula |
| tit. | titulua (izendapena) |
| zenbtz. | zenbatzailea |

3.2. Euskalkia

| laburdura | azalpena |
|-------------|---|
| B-G | Bizkaiera/Gipuzkera |
| Bizk./Naf. | Bizkaiera/Goi-nafarrera |
| Bizk./Zub. | Bizkaiera/Zuberera |
| BN | Behe-nafarrera |
| BN-Z | Behe-nafarrera/Zuberera |
| G-N | Gipuzkera/Nafarrera |
| Heg. | Hegoaldea |
| Ipar. | Iparraldea |
| Ipar./Bizk. | Iparraldea/Bizkaiera |
| Ipar./Naf. | Iparraldea/Goi-nafarrera |
| L-BN | Lapurtera – Behe-nafarrera |
| L-BN-N | Lapurtera – Behe-nafarrera – Goi-nafarrera |
| L-N | Lapurtera – Goi-nafarrera |
| Lap. | Lapurtera |
| Naf. | Goi-nafarrera |
| Naf./Zub. | Goi-nafarrera/Zuberera |
| Zub. | Zuberera |

| | |
|----------|--------------------|
| Zub./Am. | Zuberera/Amikuzera |
| Gip. | Gipuzkera |
| Bizk. | Bizkaiera |

3.3. Erabilera-markak

| | |
|--------|---------------------|
| adkor. | adierazkorra |
| beh. | behe-mailakoa |
| g.e. | gutxi erabilia |
| haur. | haur-hizkuntza |
| jas. | jasoa |
| neol. | neologismoa |
| zah. | zaharra, zaharkitua |

4. ERABILERA

UZEIren *Sinonimoen Hiztegiaren* bertsio elektronikoa hau erabiltzeko, Microsoft Word testu-prozesadorea instalatuta eta irekita eduki behar da ordenagailuan. Horrez gain, testu-prozesadorean “euskara” hizkuntza hautatu behar da.

Erabiltzaileak, Word-en euskaraz idazten ari bada, UZEIren *Sinonimoen Hiztegia* erabili ahal izango du. Beraz, egokiena hiztegia lan-ingurunean barneratua edukitzea denez, gure aplikazioak baldintza hori betetzen du.


Hasteko, erabiltzaileak euskarazko hitz bat —flexioduna edo flexiorik gabea— hautatu behar du. Horrela, aplikazio honek bi modu desberdin eskainiko dizkio *Sinonimoen Hiztegiaren* informazioa eskuratzeko:

1. Idatzi edo irakurri ahala hitzaren kontsulta lasterra egitea.
2. Kontsulta-leihoan sartzea.

Ikus ditzagun bi moduak banaka.

1) Idatzi edo irakurri ahala hitzaren kontsulta lasterra: laster-menua.

Erabiltzailea Word-ekin lanean ari denean, euskarazko hitz baten sinonimoa jakin nahi badu, hitz hori hautatu ondoren, saguaren eskuineko botoiarekin klik eginez, ondoko irudiko laster-menua agertuko zaio:



1. irudia. Laster-menuko *Sinonimoak* aukera

Laster-menuko aukera bat *Sinonimoak* da. UZEIren *Sinonimoen Hiztegiaren* informazioa ikusi ahal izateko, aukera horren gainean ezarri beharko da sagua, eta hautatutako hitzaren sinonimo batzuk azalduko dira.

Zortzi dira menu honetan gehienez ikus daitezkeen sinonimoak. Gehiago daudenean, *Sinonimoak...* hautatu eta kontsulta-leihoan guztia ikusteko aukera ematen du.

Erabiltzaileak hautatutako hitz flexioduna, sarreraren ondoren azaltzen den edozein sinonimorekin ordeztu dezake. Horretarako, nahikoa da sinonimo horietakoren baten gainean klik egitea.


Laster-menuan *Sinonimoak...* hautatzen bada —saguaren ezkerreko botoiarekin klik eginez— sinonimoen hiztegiaren leihoa azalduko da.

Zuzentzaileak ez badu erabiltzaileak hautatu duen hitza onartzen, hau da, hautatutako hitza gorritz azpimarratzen badu, sinonimoen kontsulta ezingo da laster-menuan egin. Kasuotan, aurrena zuzentzailea aplikatzea proposatzen da, forma “zuzenaren” gainean berriro laster-menua baliatu ahal izateko. Dena den, zuzentzaileak ezagutzen ez duen hitza bada, edo erabiltzaileak forma bere horretan mantendu nahi badu, forma horren sinonimoen kontsulta *Sinonimoak...* leihoan egin daiteke, beste edozein hitzekin egiten den bezala.

2) *Sinonimoen Hiztegiaren* interfazea (kontsulta-leihoa).

Erabiltzailea *Sinonimoen Hiztegiaren* leihora hiru bidetatik irits daiteke:


- Lehenago aipatu dugun moduan, laster-menuan *Sinonimoak...* aukeran klik eginez.
- Hitza hautatu ondoren, “Maius+F7” sakatuz.
- Hitza hautatu ondoren, menu-barrako *Berrikusi* hautatuz eta *Sinonimoak* aukeraren gainean klik eginez.



2. irudia. Sinonimoen Hiztegiaren leihoa

Bilatu hau atalean azaltzen da erabiltzaileak testu-prozesadorean hautatu duen hitza. Interfazean testutik hautatutako hitzaren lema posibleak —sinonimoen hiztegiko sarrerak— >><< ikurren artean azaltzen dira. Sarrera bakoitzaren azpian, sarrera horri dagozkion adierak azalduko dira letra lodiz, eta azken hauen azpian adierari dagozkion sinonimoak.


Informazio gehigarria eskainiz, sarreraren etiketak, adierarenak eta sinonimoenak parentesi artean erakusten dira.



3. irudia. Sinonimoen zerrenda

Saguaren kurtsoa sinonimo baten gainean jartzen dugunean, hautatu dugun sinonimoaren eskuinean *beheranzko* gezi bat agertzen da (ikus 3. irudia).


Gezi horren gainean klik eginez hiru aukera agertuko zaizkigu (ikus 4. irudia):



4. irudia. Sinonimoari dagokion goitibeherako menua

1. **Txertatu:** Aukera honen bidez testuan hautatuta dagoen hitza sinonimo horrekin ordeztzen du, flexio bera erabiliz. Nahiz eta sinonimoak parentesi artean etiketa eduki, ordezpena egitean etiketa hori ez da testuan ezartzen.


Adibidez, “apalaturako (Ipar.)” hautatuz gero, **Txertatu** sakatzen denean, “apalaturako” itsatsiko du Word-ek dokumentuan. Beraz, etiketa —etiketa hori euskalkia, erabilera, plurala edo hiru hauen konbinazioa izan daiteke— duen sinonimoa hautatuz, Word-ek ez du testuan etiketa ezarriko.

2. **Kopiatu:** Aukera honen bidez, sinonimoa arbelean kopiatzen da, ondoren erabiltzaileak nahi duen lekuan itsasteko. (Menutik Etxea => Itsatsi aukeraren bidez, Ktrl+V sakatuz edo  ikonoaren bidez).


3. **Bilatu**: Word-ek sinonimo hori testuan hautatutako hitz flexioduna balitz bezala hartuko du, eta hiztegiko kontsulta arrunta egingo du.


Sinonimoaren gainean klik eginda, menuan **Bilatu** aukerak duen funtzio bera egingo du.

Testuan agertzen ez den hitz baten sinonimoak aurkitzeko aukera ere ematen digu honek. **Bilatu hau** leihoan, bilatu nahi dena idatzi eta, eskuinean agertzen den gezi berdean klik eginuz, dagozkion sinonimoak agertuko dira behean, sinonimorik badu.



5. irudia. Sinonimoen zerrenda

Leihoko  botoia, aurreko hitzaren kontsultara itzultzeko erabiltzen da, hau da, leiho horretan hitz baten baino gehiagoren sinonimoen kontsulta egin bada, botoi hau sakatuz, aurreko kontsultara itzuliko gara.

Atzera botoia sakatuz aurreko kontsulta batera mugitu baldin bagara, beti egongo da aurreko kontsultetara itzultzeko aukera, **Atzera** botoiaren eskuinean agertzen den  botoiarekin.

Testutik kontsulta bat baino gehiago egin arren, kontsulta bakoitzean leihoa ixten bada, ezingo da **Atzera** botoia erabili.

5. DESINSTALAZIOA

Sinonimoen Hiztegia Word testu-prozesadoretik kendu nahi bada, hau da egin beharrekoa:

- **Hasi** menutik **Kontrol-panela** hautatu
- **Gehitu edo kendu programak** hautatu
- **Aldatu edo kendu programak** fitxako zerrendan, egin klik bikoitza “UZEIren Sinonimoen Hiztegia” aukeran

Honekin, hiztegia eta liburutegi guztiak sistematik ezabatuko dira.